

EH SUKARRA. 20 URTE

2009 ko Urrixan 20 urte bete dira lehenengo entsaio aberats haiekin rock-aren munduan murgiltzen hasi giñanetik eta 2010 eko Uztaillan 20 urte beteko dira Soroluzeko gaztetxian gure lehen kontzertua eskeini genuanetik.

Datorren Ekainak 18xan gure herrixan joko dogu eta ilusiño haundiz ari gara prestatzen egun hortako emanaldixa, Bilbo inguruko baserri batetan, gaur egun ensaiatzen dogun lokalian.

Bidai luze honetan, makina bat historio eta bizipen utzi ditugu bidian. Duela hogeï urte genuen energia hura heltzen joan da eta orain, Eh sukarra, ardo onaren antzera, talde "ondua" bilakatu da.

Datorren Ekainak 18an Untzaga plazan eskeiniko dogun kontzertura hurbitzera animatzen zaituztegu, guztion artian momentu ahaztezin bat igaro dezagun.

Rock biziä, melodiaz blaitua, Eh Sukarra talde Eibartarrak bizirik dirau.

Eh Sukarra

TALDEAREN IBILBIDEA

Eh Sukarra Eibarren jaio zen 1989 urteko urrian.

1990ko uztailean eskeini zuten beraien estraineiko kontzertua Soroluzeko gaztetxean.

1991 ko astesantuan beraien lehen maketa grabatu zuten Berlin-en ("Eh Sukarra" diskan argitaratuta daudenak). Bederatzi egunetan grabatu zuten. Bederatzi egun hoietan zehar, Alemaniako hiriburuan bost kontzertu ere eskeini zituzten. Euskal Herrira itzultzerakoan grabazio horrek, Euskadi gazteako lehen maketa lehiaketa irabazi zuen. Sortu berria zen Esan Ozenki disketxearekin elkartu eta Berlingo grabazioa luzatzea erabakitzen zuten. 1992 ko Apirilean irten zen kalera E.H. Sukarra-ren lehen iraupen luzeko diska, "E.h.Sukarra".

1993 urteko Martxoaren 1ean IZ estudioetara itzuli ziren bigarren iraupen luzeko diska grabatzeko. Jesutxo Suinaga izan zen diska honetan teknikari eta diskaren izenburua "Irtenbide Bakarra". Bigarren grabazio hau bukatzean, Su Ta Garrekoekin, "More Volumen Tourra" prestatu zuten. Europako tour hau 1993-ko Apiril osoan zehar burutu zuten. Torino (el paso), Milano (Leon caballo), Firenze, Viena, Berlin, Hannover, Freiburg, Postdam, Zeessen eta Rengsburgen jo zuten bi taldeek. Azken kontzertua Eibarren eskeini zuten maiatzaren lehenean. 1993 -ko ekainean irten zen merkatura "Irtenbide Bakarra" diskoa.

1994ko udaran beraien hirugarren diskaren grabaketari ekin zioten,oraingoan, Aitor Ariño-ren Lorentzo records estudioetan. 1994ko Durangoko azokarako kalean zegoen E.h.Sukarraren hirugarren diskoaren izenburua "Garaien Laberintoan" da. Asier Serrano idazlea diska honetan hasi zen taldearekin kolaboratzen letragile bezala. Ohi bezala laugarren birari ekin zioten europan zehar.

1996. urteko hasieran Lorentzon sartu ziren berriro ere "Ura Sutan" diska grabatzera. Diska grabatu eta gero, urte hartako Apirilean, europara joan ziren berrido, Itzuleran hainbat lekutan aurkeztu zuten diskoa.

1999 an Lorentzo Records-en sartu ziren "Sua Urtzean" beraien bostgarren diska grabatzera. Asier Serranok egin zizkien hitz guztiak, Ura Sutanen ildo argumentistikoa jarraituz. Arrakastaz egingo dute bidea, hala ere beste geldiune bat aurkituko dute bidean, oraingo hau beste hiru urtetakoa.

2002ko urtean argitaratu zuten beraien seigarren diskoa "Galtzailearen egunak deiturikoa".

2008 an Eh Sukarra zuzenean diska kaleratu zuten "Barne Records" zigiluaren eskutik.